

2015-12-22ko EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Irurako udaletxean, 2015eko abenduaren 22an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ez-ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesus Leunda Gurruchaga izan da, udalbatzako alkate-lehendakaria, eta gai-zerrendako gaiak aztertzeko, zinegotzi hauek agertu dira:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Jose Ignacio Imaz Bengoechea eta Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren zinegotziak: inor ez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Jardunbidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera.

LEHENENGO GAIA:

UDALBATZAREN AZKEN AKTAK (2015-11-24) ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Eztabaida hasita, Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazi du joan den udalbatzan PNVeko zinegotziak, Epelde jaunak, adierazi zuela, web-orriaren kontratuari buruz, Bilduk ere bereak egin zituela bere garaian, eta, ondoren, frogak aurkeztu beharko lituzkeela. Gainera, esan du udalbatzaren aktan ez dela agertzen.

Alkateak erantzun du bakarrik ohar bat izan zela.

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du frogak aurkezten ez baditu barkamena eskatu beharko duela.

Jose Ramón Epelde zinegotziak adierazi du gaizki hitz egin zuela eta barkamena eskatzen duela.

Zuzenketa horiekin, 2015eko azaroaren 24ko ohiko bilkuraren aktaren zirriborroa aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

IRURAKO UDALAREN 2015. EKITALDIKO AURREKONTUAREN 2. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udal honen 2015eko ekitaldiko aurrekontuaren 2. kreditu aldatetaren (2/2015) berri eman da, alkateak proposatutakoa.

Se da cuenta del Expediente de Modificación de Créditos nº 2/2015, del Presupuesto de este Ayuntamiento del ejercicio económico de 2015, propuesta por la Alcaldía.

Idazkari kontu-hartzailearen txostena ikusita.

Visto el informe del Secretario-Interventor.

Era berean, gaurko bileran, Kontu Orokorretako, Aurrekontuko eta Administrazioako informazio-batzordearen aldeko erabakia ikusita.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Cuentas Generales, Presupuesto y Administración en reunión celebrada el día de hoy.

Hori guztia dela eta, Udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

Ante ello, el Pleno por unanimidad de los presentes:

ERABAKIA

ACUERDA

Lehena.- Behin-behinean onartzea 2/2015 kreditu-aldaketaren espedientea, 2015eko ekonomia-ekitaldiaren aurrekontuarena. Horrek honako laburpena du:

Primero.- La aprobación provisional del Expediente de Modificación de Créditos nº 2 del Presupuesto del ejercicio económico de 2015, con el siguiente resumen:

A) GASTUEN HEDAPENA: 213.600 €

Kapitulua/ Partida	Egungo zenbatekoa	Handitzea	Guztizkoa
-1. kapitulua	781.400 €	48.600 €	830.000 €
-2. kapitulua	589.000 €	126.000 €	715.000 €
-8. kapitulua	2.000 €	39.000 €	41.000 €

B) FINANTZAKETA: 213.600 €

B.1.- 2014ko DIRUZAINTZAREN SOBERAKINAK: 54.600 €

B.2.- GASTUEN MURRIZKETA 70.000 €

Kapitulua/ Partida	Egungo zenbatekoa	Murrizketa	Guztizkoa
-6. kapitulua	357.400 €	- 70.000 €	287.400 €

B.3.- SARREREN HAZKUNTZA 89.000 €

Kapitulua/ Partida	Egungo zenbatekoa	Handitzea	Guztizkoa
-----------------------	-------------------	-----------	-----------

Partida			
-7. kapitulua	125.000 €	50.000 €	175.000 €
-8. “	1.000 €	39.000 €	40.000 €

Bigarrena.- Espedientea jendurrean jartzea 15 laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez, erreklamazioak aurkezteko aukera egon dadin.

Inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, behin betiko onartutzat joko da.

Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da espedientearen laburpena kapituluka.

Hirugarrena.- Horrez gain, eta indarrean dagoen legediarekin bat, aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna betetzeari buruzko txosten bat erantsi da, eta, ondorioz, Udaltzari honako komunikazioa egin zaio:

- A) 2015eko aurrekontuko 2. kreditu-aldaketaren espedientearen proposamenak ez du defizitaren helburua betetzen.

-Beraz, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzkoa dena, Udala behartuta dago Plan Ekonomiko Finantzarioa onartzera.

-Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak Toki-entitateen 2015erako Aurrekontuak onartzeko onetsi duen Jardunbidean ezarritakoaren arabera, Diruzaintzako Soberakinak erabiltzeari buruzko arauak betetzen ez badira —espediente honetan gertatzen den bezala—, eta 1/2013 Foru Arauko 5. artikulua hiru paragrafoan ezarritakoari jarraiki, komunikazio hau egiten da: Zirkunstantzia hori eman da eta Udalaren finantza-iraunkortasuna aztertzen eta ebaluatzen duen idazkari-kontu hartzailearen txostena erantsi da. Txosten horren arabera, Udal honen finantza-iraunkortasuna ona da.

- B) 2. kreditu Aldaketaren espedientearen proposamenak ez duela betetzen gastuaren araua, eta, ondorioz, behartura dagoela Plan Ekonomiko eta finantzarioa onartzera.

Segundo.- Someter el expediente a información pública por el periodo de 15 días hábiles, mediante publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a efectos de reclamaciones.

En el caso de que no se presente ninguna, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo.

Así mismo se deberá publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el resumen por capítulos del expediente.

Tercero.- Además y de acuerdo con la legislación vigente, se adjunta informe sobre el cumplimiento de la normativa en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera y en consecuencia se comunica al Pleno lo siguiente:

- A) Que la Propuesta de Expediente de Modificación de Créditos nº 2 dentro del Presupuesto de 2015 no cumple con el objetivo de déficit.

-Que en consecuencia con el art. 21 de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, el Ayuntamiento está obligado a aprobar un Plan Económico Financiero.

-Sin embargo y de acuerdo con lo dispuesto en la Instrucción aprobada por la Diputación Foral de Gipuzkoa para la aprobación de los Presupuestos de las Entidades Locales para 2015, en el caso de no cumplimiento de las normas citadas por utilización del Remanente de Tesorería, como es en este expediente, y de acuerdo con lo dispuesto en el párrafo tercero del art. 5 de la Norma Foral 1/2013, se realiza la siguiente comunicación: Se manifiesta la circunstancia citada y se adjunta un informe de Secretaria-Intervención en el que se analiza y evalúa la sostenibilidad financiera del Ayuntamiento. De acuerdo con dicho informe la sostenibilidad financiera de este Ayuntamiento es buena.

- B) Que la propuesta de Expediente de Modificación de Créditos nº 2, no cumple con la regla de gasto y por lo tanto está obligado a aprobar un Plan Económico-Financiero.

Hala ere, aipatu den Instrukzioaren 3. arauaren arabera, ez-betetzea diruzaintzako soberakina erabiltzearen ondorioz geratzen bada, kasu honetan bezala, Plan hori aurretiaz aurreikusitako komunikazioarekin ordeztuko da.

Que sin embargo y de acuerdo con la Regla 3 de la Instrucción citada, en el caso de que el incumplimiento se produzca como consecuencia de la utilización del remanente de tesorería, como es en este caso, dicho Plan se sustituirá por la comunicación al Pleno prevista anteriormente.

HIRUGARREN GAIA

IRURAKO IKASTOLAREN ESKAERA ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEKO ZERGAREN HOBARIA ONARTZEKO, HALA BADAGOKIO.

Abenduaren 2ko 268/2015 Alkatetza Dekretuaren bidez, Irurako Ikastola Elkarte Kooperatibari hirigintzako lizentzia eman zaio Plan Orokorraren 11. eremuan haur-hezuntzarako eraikin bat eraikitzeko. Lizentziarekin batera, Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergaren behin-behineko kitapena exijitu da, 29.866,70 eurokoa.

Aipaturiko erakundeak adierazi du irabazi-asmorik gabeko kooperatiba bat dela, eta irakaskuntza integralaren eta babestuaren alde dagoela. Erantsi du Irurako ikasleei irakaskuntza euskalduna, kalitatezkoa eta plurala eskaintzen dizkiela. Eta, Zergaren Ordenantza Fiskalean jasotakoa betez, interes bereziko eraikuntzen kasuan (bai sozialak, bai kulturalak) adierazitako zerga-hobaria aplika dadila eskatzen duela.

Aintzat hartuta Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Udalaren Ordenantza Fiskala:

“c) Interes bereziko edo Udal-erabilerako eraikuntzen kasuan % 95erainoko hobaria, aitorpen hori justifikatzen duten zirkunstantzia sozialak, kulturalak, historiko-artistikoak edo enplegua sustatzeko zirkunstantziak ematen direnean. Udalaren Osoko Bilkurari dagokio deklarazio hori egitea, eta haren kideen gehiengo soilaren aldeko botoarekin erabakiko da, subjektu pasiboaren eskaera jaso eta gero.”

Eskatzaileak aipatzen dituen arrazoiez gain, aintzat hartu behar dira erakundearekin

Por Decreto de Alcaldía nº 268/2015 de 2 de diciembre se ha concedido a Irurako Ikastola Elkarte Kooperatiba licencia urbanística para la construcción de un edificio destinado a educación infantil en el area 11 del Plan General. Con la licencia se ha exaccionado la correspondiente liquidación provisional del Impuesto de Construcciones Instalaciones y Obras por un importe de 29.866,70 euros.

La citada entidad señala que es una cooperativa de enseñanza integral y protegida y sin animo de lucro. Así mismo que ofrece a los alumnos de Irura una enseñanza euskaldun, de calidad y plural. Y que de acuerdo con lo dispuesto en la Ordenanza Fiscal del Impuesto solicita la aplicación de la bonificación fiscal allí señalada para las contrucciones de especial interés, ya sea social o cultural.

Considerando lo dispuesto en la Ordenza Fiscal municipal del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras:

“c) Una bonificación hasta el 95% a favor de las construcciones que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales, culturales, historico-artísticas o de fomento de empleo que justifiquen tal declaración. Corresponderá dicha declaración al Pleno de la Corporación y se acordará, previa solicitud del sujeto pasivo, por el voto favorable de la mayoría simple de sus miembros.”

Además de las razones aludidas por la solicitante hay que tener en cuenta

sinatutako eta Udalak 2015eko maiatzaren 6an egindako Osoko Bilkuran onartutako hitzarmena eta 2015eko ekainaren 5eko eskritura publikoa.

Hori dela eta, Udalera bildu direnak aho batez adostu dute honako hau:

Kitapenaren % 95eko hobaria ematea erakunde eskatzaileari; horrenbestez, 1.493,34 euroko behin-behineko kopurua likidatu beharko da.

el convenio firmado con la entidad y aprobado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 6 de mayo de 2015 y posterior escritura pública del 5 de junio de 2015.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

Conceder una bonificación del 95 por 100 de la citada liquidación a la entidad solicitante y por lo tanto la cantidad a liquidar con carácter provisional será de 1.493,34 euros.

LAUGARREN GAIA

SAREren MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Sare-ren Mozioa aurkeztu da:

“Euskal presoek eskubideen aldeko iruratar taldea gara, zuengana gatoz datorren urtarrilak 9an Bilbon zein Baionan ospatuko den presoek eskubideen aldeko manifestazioen berri ematera.

Bi hiri, baina eskaera bakarra: mugarik ez giza eskubideei, konponbideari eta bakeari; gizarte bat eta bakarra Madrili eta Parisi konpromisoak eskatuz, mugi daitezela exijituz. Bilbon eta Baionan ikusiko dugu elkar. Eta, orduan, gauden tokian gaudela ere, bide berean izango gara, herria ozen aldarrikatzen ari den konponbidearen ibilbidean.

Alde batetik, udalak ondoren aipatzen diren puntuekin bat egin dezala eta konpromisoa ager dezala eskatu nahi diogu.

Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea.

Espainiar estatuan ezartzen den 197/06 doktrina bertan behera uztea, eta zigorra bete duten presoak askatzea. Hitz batez, bizi osorako espetxe zigorrarekin amaitzea.

Frantziar estatuan ezartzen den bizi osorako zigorra bertan behera uztea, baldintzapeko askatasunari bide emanez.

Zigorraren 3/4 bete dituzten presoak kaleratzea.

Gaixotasun larriak dituzten presoak askatzea, eta bestelako gaixotasunak dituzten presoek zaintza egokirako beharrezko neurriak hartzea. Azken finean, presoek osasunerako eskubidea bermatzea da eskatzen duguna.

Ireki den aro berrian gatazkaren soluziorako bidean modu positiboan eragiteko, frantziar eta espainiar estatuek darabilten espetxe politika konponbide gakoetan ezartzea.

Bestaldetik, Urtarrilak 9an iruratarrei Bilbora joateko erraztasunak eskaini nahi dizkiegu, eta, horretarako, autobusa antolatuko dugu. Udalari konpromisoa eta laguntza ekonomikoa eskatzen dizkiogu, autobus-zerbitzua guztien eskura egon ahal izateko.

Bilbon denak elkar ikusiko garelakoan..."

Bertaratu direnen artean, pertsona batek honako hau adierazi du: Euskal Presoen egoera lantzeko talde bat osatu dela Iruran, eta ez direla Sareko kideak. Gai hau ez da Alderdi Politiko baten ekimena, talde desberdin batena baizik. Hitzaldi bat egin zen, eta, bertan, psikologo batek adierazi zuen presoen egoeran duen eragina pertsona hauetan. Udaleko pertsonak ez ziren hitzaldira bertaratu. Eskatu du antolatzen diren ekimenetara joatea, eta diru-laguntza ematea guztiek autobus-zerbitzua eskura izateko.

Diru-laguntzari buruz, alkateak adierazi du diru publikoa dela. Olaia Nieto zinegotziak erantzun dio eskatzen den diru-laguntza sinbolikoa dela, eta bakarrik eskatzen duela pauso bat ematea.

Bozketa egin da, eta proposamenari uko egin zaio: 4 boto ALDE (EH Bildu) eta 5 KONTRA(EAJ/PNV).

Ondoren, EAJ/PNVren Mozio alternatiboa aurkeztu da:

"Mozio alternatiboa espetxe-politikaren gainean

Zioen azalpena: Espetxe-politikak eragin handia du euskal errealitate soziopolitikoan, euskal erakundeen esparruetan eragina duten eztabaidetan baitago. Gizartearen sektore zabalek espetxe-politika horren gorabeherak bizi dituzte, eta politika hori aldaraztea eskatu dute.

Espetxe-politikak, halaber, errealitate zaurgarri eta ahuletan du eragina, besteak beste, preso dauden pertsonengan, haien familiengan eta haiek guztiek dituzten eskubideetan.

Zentzu horretan, espetxe-politika batek humanizatzeko edo deshumanizatzeko izan dezakeen gaitasunaren isla argia da.

Zio horiengatik, hain zuzen, espetxe-politika bizikidetzatza-politika baten zatitzat jo beharra dago, eta are gehiago, oraingoaren moduko testuinguru batean. Espetxe-politikaren dimentsio hori ulertzeko, ezinbestekoa dugu funtsezko erreferentzia bi gogoratzea:

Espainiar Konstituzioaren 25.2 artikulua araberaz, askatasuna murrizteko zigorrek preso dauden pertsonak berreztera eta birgizarteratzera bideratuak behar dute izan.

Konstituzioan ematen den azalpen horrek balio berezia hartzen du orain, ETaren bortxakeria behin betiko amaitu den testuinguru honetan, halako delituetan berriz erortzeko mehatxua desagertu dela esan nahi duelako.

Marko horretan, eta espetxe-politika bizikidetz-politika baten parte izan dadin, haren aplikazioa aldarazi behar da, ETaren bortxakeriari erantzuteko hartu ziren salbuespen-estandarrek zehaztu zuten neurrian. Orduan ere, neurri batzuk eztabaidagarriak eta eztabaidatuak ziren. Oraingo testuinguru honetan, ezinbestekoa dugu normaltasun-estandarrak berreskuratzea.

Espetxe-politika horrek, bizikidetz-politika baten zatitza ulertuta, bi alderdi ditu: alde batetik, Gobernuaren eskuetan dagoena dago, erakundeen eta zigor-zuzenbidearen eskuetan, alegia; beste alde batetik, presoen eta haien erakundeen eskuetan dagoena.

Zentzu horretan, ondo ezberdindu behar diren lau maila daude:

Lehenengo eta behin, preso dauden pertsonen eskuetan dago legearen arabera euren egoera hobetzeko dagozkien neurriak eskatzea, esate baterako: euren bizitokitatik hurbil dauden espetxetara hurbiltzea (LOGP legearen 12.1. artikulua), gaixotasun larriak dituzten presoak espetxetik ateratzea (Espetxe Araudiaren 104.4 artikulua) edo 70 urtetik gorako kartzelaratuak espetxetik ateratzea (Araudi bereko 92. artikulua).

Neurri horiek aplikatu daitezke preso dagoen pertsonari baldintza apartekorik eskatu beharrik gabe. Bitxia eta harrigarria bada ere, hainbat hamarkadatan, presoek elkargoak uko egin dio halako eskariak egiteari; orain, haien irizpidea aldatu dute, eta, zorionez, eskari horiek tramitatzen hasi dira.

Bigarren, Gobernuaren eskuetan dago espetxe-politikak berezko duen helburu humanizatzailea betetzea, eta legeriak berak preso dauden pertsonen egoera hobetzeko aurreikusten dituen neurriak normaltasunez eta berdintasunez aplikatzea.

Horrek berarekin dakar hurbiltze-prozesua egitea edo preso gaixoentzat eta 70 urtetik gorakoentzat irtenbide humanitarioak ezartzea.

Hirugarren lekuan dago gizarteratzeko lege-prozesuak aktibatzea, bortxazko delituengatik kartzelaratuak dauden pertsonen eskuetan dagoena.

Kasu horietan, bete beharreko baldintza da biktimei eragindako kalteari buruzko hausnarketa autokritikoa egitea, kalte bidegabea izanik, pertsona haien giza eskubideak urratzea ekarri zuelako.

Autokritika hori ezin da soilik preso dagoen pertsona bakoitzaren ardurapean utzi.

Zentzuduna da erakundeek eta bortxakeriaren erabilerari balio politikoa eman ziotenek autokritika hori egiten duten lehenak izatea.

Laugarren tokian, Estatuari dagokio askatasuna murrizteko zigoren helburu birgizarteratzailea garatzea eta birgizarteratzeko prozesuak sustatzea, legeak birgizarteratzeko prozesuen markoan aurreikusten dituen ohiko espetxe-onurei bidea emanez.

Irizpide horiek argi utzirik eta espetxe-politikaren gainean planteatzen diren aldarrikapen ezberdinen aurrean, Irurako Udal Txit Gorenak honako akordio hau hartu du:

1. Espainiar Gobernuari espetxe-politika bizikidetza-politikaren zati bihurtzeko gonbidapena luzatzea, eta, ondorioz, espetxe-politika hori aldarazteko eskatzea, salbuespen-estandarrak gaindituz. Halaber, eskatzen da euskal erakundeekin adostea eta espetxe-politika Eusko Jaurlaritzaren ardurapean uztea, Gernikako Estatutuak berak 10.14 artikuluan ezartzen duena betez.

2. Espetxe Erakundeei presoak euren bizitokietatik hurbil dauden espetxeetara hurbiltzea, zigor-legeriak hala ezartzen duelako (LOGP legearen 12.1 artikulua). Era berean, eskatzen da Espetxe Araudiaren 1204.4 artikulua aplikatzea, gaixo larrien kasuan eta araudi bereko 92. artikulua aplikatzea 70 urtetik gorako presoek kasuetarako.

3. Presoei eta babesaren ematen dieten erakundeei birgizarteratzeko legearen barruan aurreikusten diren urratsak ematen has daitezkeen eskatzea. Prozesu horiek norbanakoaren ekimenaren bidez bideratu ahal dira, eta, egin den delituaren arabera, biktimei urratu zaizkien giza eskubideen gaineko hausnarketa arduratsu eta autokritikoa egin beharko da.

4. Gure gizartean, giza eskubide guztiak defendatzeko konpromisoa sustatzea, ikuspegi integral eta ez baztertzaitetik abiatuta, eta oraina, etorkizuna eta iragana konpentsatzen dituen. Horrek berarekin dakar urratua izan den giza eskubide bakoitzarekiko aitortze kritiko eta berariazkoa egitea, urraketa hori ETAk gauzatua izan nahiz bestelako iturritik eragindako bortxakeria izan.”

Bozketa egin da eta onartu da: 5 boto ALDE (EAJ/PNV) eta 4 boto ABSTENZIO (EH BILDU).

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du haren taldea ez dagoela testu horren aurka, eta horregatik abstenitu direla.

Olaia Nieto zinegotziak beste taldeari galdetu dio zergatik dauden Share-ren Mozioaren aurka edo ez-ados.

Alkateak erantzun dio Share-ren Mozioaren puntu batzuen alde daudela eta beste batzuen aurka, eta egokiagoa iruditzen zaiela PNVren Mozioa.

Publikoko pertsona batek galdetu du noiz parte hartuko duten ekimenetan. Esaterako, jubilatuek ondo hartu zuten ekimena, eta batzuk ekitaldira joan ziren.

BOSGARREN GAIA

GALDE-ESKEAK.- Esparru honetan gai hauek tratatu dira:

a) Mikel Gotzon Iturbe zinegotziak galdetu du zein egoeratan dagoen konposten hobaria, zaborraren tasari dagokionez, eta horrekin zerbait egin den ala ez. Alkateak erantzun dio gai hori aztertuko dela.

Ainhua Ugalde zinegotziak adierazi du, legezkoa bada, aplikatu egin behar dela.

b) Jose Ignacio Imaz zinegotziak galdetu du aurten ea norik antolatu duen "jaiotza-bizidunera " kantatzea joatea. Alkateak erantzun dio Elizak antolatu zuela.

c) Jose Ignacio Imaz zinegotziak web-orri berriaren kontratuari buruz adierazi du, joan den osoko bilkuran, alkateak azaldu zuela enpresa horri eman zitzaiola esleipena, merkeena izan zelako, baina beste enpresa batzuk merkeagoak zirela, eta horregatik uste dutela hori ez zela izan enpresa hori aukeratzeko argudioa, baizik eta PNVeko kidearen enpresa zelako.

Alkateak erantzun dio webgunea garatzeko 5 aurrekontu izan zirela kontuan. Enpresa aukeratzeko orduan, kontuan hartu ziren bai modulu berri bat egiteko gaitasuna eta baita prezioa ere (guztizkoa eta €/orduko). Horrela, 3 enpresa kanpoan geratu ziren. Arrazoiak: webguneen garapenean adituak ez izatea, €/orduko garbi ez edukitzea, orokorra izatea eta €/orduko garestia izatea. Bi enpresen aurrekontuak oso parekoak ziren; batena, ordea, orokorra zen eta bestearena, berriz, Irurako webgunea aztertu ondoren egindakoa; horrek ordu gutxiago sartu beharra suposatzen zuen, beraz, merkeagoa. Horrela, Iketek enpresa aukeratu zen.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak erantzun dio PNVk gardentasunaren aldeko propaganda egiten duela, baina gero gardentasun hori ez dela inon ere agertzen. Tolomendi erakundeak Tolosaldeko udalentzat lan egiten duela informatikaren esparruan, eta ez dela haren zerbitzua erabili enpresa hori aukeratzeko. Imazek adierazi du Iketek enpresak beste enpresek baino ordu gehiago aurkeztu dituela lan

hori betetzeko. Hasieran, Aldundiari beste enpresa baten aurrekontua bidali zitzaiola, diru-laguntza eskuratzeko, baina, gero, Iketek enpresari aurrekontua eskatu zitzaiola, Tolomendiren iritzia jaso gabe.

Alkateak erantzun dio Tolomendiren aholkularia etorri zela udaletxera, eta esan ziola enpresa baten aurrekontua eman ziola idazkariari, Aldundiari diru-laguntza eskatzeko.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du beste enpresaren aurrekontua 7.000 eurokoa zela, eta aukeratu den enpresarena, berriz, 14.000 eurokoa. Gai hau larritzat jo du. Beraien ustez, hori prebarikazioa da (bidegabeko erabaki bat hartzea). Aurrekontu handiagokoa aukeratu zen, eta, gainera, PNVko kidearen enpresarena. Galdetu du ea ezin den jakin nork aholkatu zion erabaki hori hartzeko.

Alkateak erantzun dio berak hartu zuela erabaki hori, eta lotsagarria izan zela, diru-laguntza eskuratu ahal izateko, aurrekontua berari jakinarazi gabe bidaltzea. Beraren inguruan omen dauka ingeniari informatikoa den pertsona bat. Hark aholkatu ziola, eta ez duela Iketek enpresarekin zerikusirik.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak galdetu dio ea Tolosako PNVk esan zion enpresa hori kontratatzeke ala PNVko norbaitek esan zion Iketek enpresari aurrekontua eskatzeko.

Mikel Gotzon Iturbe zinegotziak adierazi du alkateak erabakia hartu zuela aholkularitzarik gabe.

Jesús Maria Alonso zinegotziak esan du alkateak ingurukoei eskatu ziela aholkua erabaki hori hartzeko.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du PNVko kideek gomendatu ziotela aurrekontua Iketek enpresari eskatzeko, eta Tolomendiko aholkularitzak eskatu zituen aurrekontuei uko egitea erabaki zuela, eta kopuru bikoitzeko aurrekontua aurkeztu zuen enpresaren alde egin zuela.

Alkateak adierazi du legearen arabera kontratu hau “contrato menor” izeneko delatzen dela, eta ahalmena duela zuzenean edozein enpresari esleitzeko, baldintza hauek betetzen baditu: kontratatzeke ahalmena izatea eta behar den lanbide gaitasuna izatea, obra edo zerbitzua betetzeko.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak galdetu dio ea nork lagundu dion testu hori prestatzen.

Alkateak erantzun dio alabak aholkatu eta lagundu egin ziola testu hori prestatzen eta PNVetik ez duela aholkurik jaso eta ez diola esan aurrekontu hori sartzeko. Erabakirik onena hartu zuela.

Jesús Maria Alonso zinegotziak esan du kontratu hau ez dela inori mesede egiteko egin.

Aztartzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:45ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIATZATZEN dut, idazkari naizen aldetik.

ALKATEA

IDAZKARIA